



Aste Santua amaitu orduko iritsiko dira Santakrutzak

Apirilaren 30ean abiatuko dira jaiak, Punttuka bertso eskolako txupinazoarekin. Maiatzaren 4ra bitarte dozenaka hitzordu iragarri dituzte. / 5-12

AIURRI

Vaiven konpainiaren agurra

Urrietako Sarobe Arte Eszenikoen gunean ekoiztu ditu muntaia gehienak antzerki konpainia profesionalak. Ana Pimenta zuzendaria elkarrizketatu du Aiurrik / 6-7



Urrietako Osane belardenda, euskaraz aritzeko guneetakoa izango da Euskaraldian / 3



Andoaingo eta Urrietako alebin mailako jokalaria, aurtengo Joxan Huizi memorialean / 8

Maixa eta Ixiar oholtzara igoko dira maiatzaren 4an, Santa Krutz jaietako amaiera biribila emateko / Gehig. 8

Santakrutzetan egiten den Leitzaran ibaiaren erreka-jaitsierak 80ko hamarkadan du jatorria / Gehigarria 6-7



EUSKARALDIAREN GAKOAK

EUSKARALDIA ERAGINKORRA DA.

Hau da, euskararen erabilera altuagoa da Euskaraldian parte hartu ondoren, aurretik baino.



EUSKARALDIA ARIKETA PRAKTIKO ERREALA DA,
ez euskararen aldeko kanpaina.

ERABILERA-MOTA BATZUK HEDATU ETA LEGITIMATU EGIN DITU.

Euskaraldiak ordura arte ez-ohikoak ziren hizkuntza-ohitura batzuk gero eta ohikoagoak bihurtu ditu, adibidez: lehen hitza euskaraz egitea eta elkarrizketa elebidunei eustea.

EUSKARALDIAK HIZKUNTZA-KOMUNITATE OSOA BATZEN DU.

Hizkuntza-komunitatea trinkotzen duen eta administrazio desberdinak elkarlanean jartzen dituen ekimena da.

PARTAIDETZA ETA IKUSGARRITASUN HANDIA ESKATZEN DITU EUSKARALDIAK.

Hizkuntza-ohituretan aldaketaren bat egiteko gogoia eta prestutasuna duten herritarrak erakarri nahi ditu Euskaraldiak.

TXAPEN ERABILERA MASIBOA GAKO GARRANTZITSUA DA.

Txapen presentzia masiboak ariketa bera egitea ahalbideratzen du eta giro sozial egokia sortzen du.

AHALIK ETA PARTAIDETZARIK ZABALENA LORTU NAHI DA.

Euskaraldia, euskararen erabilera praktikoan aurrerapausoak emateko prest daude pertsona, erakunde eta entitateen elkargunea da. Helburu zehatz horiekin bat egiten duten guztiek parte hartzea bilatzen du.

Euskaraz bizi nahi duen komunitate batentzat ari gara lanean, eta bide horretan laguntzen duen tresna daukagu esku artean. Eragina izaten ari gara, urrats berriak ematen ari gara.

Arnas luzeko programa da Euskaraldia, eta 2025eko udaberri honetan, aurrerapauso handiak emateko aukera izango dugu berriro ere. Erronka ederra dugu, beraz, eutsi goiari! Hizkuntza-ohiturak aldatzen jarraituko dugu!

“Lehen hitza euskaraz izatea ahalegintzen naiz”

MAIALEN ESTARLOA OSANE BELAR-DENDA

Maiatzaren 15etik 25era izango da aurten Euskaraldia. Izen-ematea irekita dago, jada, eta Urnietako Idiazabal kalean dagoen merkatalgunea “entitate” rolean ariko da

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Entitate rolean eman du Osane dendak izena Euskaraldian. Hala, euskararentzako arnagune bilakatuko da denda ariketa erraldoiak iraun bitartean. Hamar urteko bidea osatuko du Urnietako Idiazabal kaleko saltokiak udazkenean eta ez da Euskaraldian parte hartuko duen lehen aldia.

Euskararen aldeko ariketa erraldoia da Euskaraldia. Hizkuntzarekiko daukauen konpromisoa erakusteko modua al da?

Bai, zalantzarik gabe. Egutero lehen hitza euskaraz izatea ahalegintzen naiz, nahiz eta sartzen diren bezeroetako asko erdal hitzunak izan. Posible den heinean, bai, beti euskaraz. Horre-



Maialen Estarloa Idiazabal kaleko dendan. AIURRI

gatik, guretzat ez da berebiziko ahalegina izango Euskaraldian parte hartzea, izan ere, erronka hori urte osora zabaltzen dugu.

Makina bat herritar dabil Osanen. Zein da lehen kolpean egiten duzun irakurketa, hizkuntza-ohiturei dagokionez?

Dezente entzuten da euskara, baina bada erdal joera duenik ere, adibidez, jende gaztearen artean. Horrek harritzen nau, askok gaztelaniaz egiten dutelako lehen hitza.

Ez da Euskaraldian parte hartuko duzuen lehen aldia. Jendeak konpromisoz betetzen al du erronka? Ahalegina egiten dute herritarrek, beti euskaraz hitz egiten entzuten didatelako. Hala, Euskaraldian, etor dadila Osanera euskaraz praktikatu nahi duen jendea!

Bultzada ematen du Euskaraldiak. Ikusi da urteen poderioz erabilera jaitsi dela, hortaz, zerbait egin beharra dago. Kontsumitzen ditugun eduki asko dira gaztelaniaz. Nik neuk ere lanean hornitzaileei egin beharreko eskariak erdaraz egin behar izaten ditut. Horregatik euskaraz hitz egiteko gonbidapena da Euskaraldia eta ez da aukera galdu behar.

Borondatezkooa da Euskaraldian parte hartzea. Zer esango zenieke gainerako tokiko saltokiei?

Txapek ere laguntzen dute erronkan, ariketa bera ikusgarriagoa bihurtzen dutelako. Izena eman dezatela esango nieke eta euskarra konpromisoz sustatu dezatela!



Txapak bi dira: ahobizi eta belarriprest.

Txapak banatzen hastear dira Andoainen

Ahobizi edo Belarriprest rola beteko duten herritarrek txapa soinean eraman behar dute

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Euskaraldia Batzordeak txapak banatzeari ekingo dio, maiatzaren 5etik aurrera. Zumea kalean Ernaitza liburutegia zaharraren atarian egingo dute. Egun horretaz gain, maiatzaren 9an ere XaxaFest jaian bertan ere eskuratzeko aukera izango da. Aita Larra-mendi ikastolako familiek, aldiz, etxeko seme-alaben bitartez eskuratzeko dituzte txapak.

XaxaFest jaia, maiatzaren 9an

Arratsaldeko 17:30ean hasita. Manuel Larra-mendiren eskultura dagoen inguru hartan, ospakizuna antolatu du Andoaingo Batzordeak. Haur eta gazteak izango dira, beraz, protagonistak.

17:30ean, marrazketa lantegia eta Gazte Lokalak antolaturiko jolasak izango dira. Arratsaldeak aurrera egin ahala, 19:00etan, Egape dantza taldekoek Euskaraldiaren kantuan oinarrituriko koreografia aurkeztuko dute. 19:30ean, berriz, Zirko kalejira abiatuko da Goikoplazatik. 20:30ean bokata-afariari ekingo diote eta gaueko 21:00etan Arrixku taldeak amaiera emango dio ospakizunari.

Bokata-afarirako txartelak, 5 eurotan, Santakrutzen ostean jarriko dituzte salgai Ernaitzan, Stopen eta txapa eskuratzeko egokitutako gunean.

BERTSO PILOTA

MAIATZAK 9
URNIETAKO FRONTOIAN

19:00 HAUREN PARTIDAK
20:00 BERTSO PILOTA SAIOA

ALBERDI ODRIOSOLA
VS
URMENETA ELIZEGI

NEREA ELUSTONDO ETA
UNAI GAZTELUMENDI BERTSOTAN

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



BERTSO BAZKARIA

MAI ATZAK **3** XOXOKAN

JEXUX MARI IRAZU **NEREA IBARZABAL**

14:00 **ESKOLAN**

25€ IZENA EMATEKO: 653 746 255

Umieta
udala

Matxura Aste Santuan

Aste Santuko oporraldiaren erdian, aurreko larunbatean (apirilak 19), matxura izan zen Andoaingo Doktor Huitzi kaleko ur edangarriaren hoditerian. Ondorioz, inguruko etxebizitzak urik gabe egon ziren arratsalde osoan. Konponketa lanei berehala ekin zieten Udal langileek, eta Ilunabarrerako jada ura itzuli zen etxeetako iturrietara.



AIURRI

Konponketa lanetan

Hilabete pasatxo da Adunako erribera zeharkatzen duen errepidea moztu zutenetik. Trafikoa, nagusiki, Andoaindik bideratzen ari dira. Adunako Haizpea eta Erribera industriguneetara iristeko bide alternatiboa martxan da, Oria ibaitik gertuen dauden pabiloietan barrena doana. Lanak hainbat astez luzatuko dira oraindik.



AIURRI

HEMEROTEKA

AIURRI 2024KO UZTAILA

Frantzisko Aita Santua Iñaki Zabaleta apaizaren ahotan

19 urtez Andoaingo San Martin parrokian erretorea izan eta gero, erretiroa hartu zuen Iñaki Zabaleta Galarragak. Askoren artean Elizaren premiazko modernizazio-prozesua hizpide izan zuen. Hilberria den Aita Santuari eliza

modernizatzeko saiakera aitortzen zion: "Argi dago Eliza Katolikoak krisialdia bizi duela, eta zaharberritze baten premia daukala, zalantzarik gabe. Beste modu batera antolatu beharra dauka, baina gertatzen zaio egundoko egitura duen

instituzioa dela, eta bere denbora behar duela mugitzeko. Egin kontu mundu guztian zabaldua dagoela. Eliza Katolikoak murgilduta dago prozesu eraldatzaile horretan, poliki-poliki; Aita Santua bide horretatik doa".



Punttuka bertso eskolakoak izango dira aurtengo Santa Krutz jaien hasierako pregoia irakurri eta suziria piztuko dutenak. AIURRI

SANTA KRUTZ JAIAK, APIRILAREN 30EAN HASITA

SALDIAS
ARRANDEGIA

ZUMEA KALEA, 5
ANDOAIN
943 590 704

Ondo pasa
Santakrutzetan!

Mila esker
bihotzez
bidelagun
izan
zareten
guztioi!





Lau urte atzera, pandemiaren amaiera aldera, murala egin zuten Bekoplazatik gertu. AIURRI

"Txartel gehiago saltzea jauzi handia da guretzat"

JAI BATZORDEA ANDOAIN

Kuadrillen egunerako txartel gehiago saltzea erabaki dute eta guzti-guztiak azkar batean saldu dira. Goranzko interes handiaren aurrean, tentuz jokatzeari erabaki dute

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Apirilaren 30etik maiatzaren 4ra doazen bost egunetan hamaika hitzordu izango dira Santa Kruz jaietan. Festazaleen begietara hori da, hori, pagotxa! Kontzertuak, kirol jarduerak, jana eta edana... egitarauari erreparatuta, hitzordu asko klasi-ko bilakatu dira Santa Krutz jaietan. Askoren artean, danborradak, sagardo dastaketa, ikurriñaren jaitsiera... Badira, aurtun, berrikuntzak. Nabarmenena, gaztetxoei begira antolatu duten tirolina. Zaharrak eta berriak, klasikoak eta berritzaileak, guztiak egin ahal izateko ezinbestekoa da antolatzaileen lana. Ardura eta erantzukizuna da, eta ikusten ez den lan asko dago aurretik. Jai Batzordeak badu bere alde inguruan dituen eragileak eta boluntarioak: behar-beharrezkoak dira hitzordu guztiak egin ahal izateko. Gainerakoan ezinezkoa litzateke. Aiurri astekaria hainbat batzordekideekin elkartu da, jaiak asteko bi asteren faltan: "Gabon aurretik lehen bilera egiten dugu eta, urtariletik aurrera, astero-astero zortziko lantaldea

martxan jartzen gara. Baina ezin aipatu gabe utzi inguruan dugun boluntario taldea. Haien ekarpena ezinbestekoa da, bereziki, ekitaldi jakinetan. Batzuk aipatzen hasita, auzo bazkariari begira lantalde bat ari da lanean. Eta, bermouth musikatuen kasuan ere, beste hamaik bost bat lagun ditugu lotuta". Auzoko festak dira, beraz, auzolanean egiten direnak.

Iaz, sei eguneko ospakizuna; aurtun, bost egun dira

Tetris modukoa da egitaraua osatzea: "Ekitaldi asko txertatu behar dira bost eguneko egitarauan. Iaz, esaterako, lasaiago geunden egun bat gehiago izan genuelako. Ez luke horrela izan behar, baina ekitaldi guztiak egitarauan txertatzeko lana bu-ruhaustea da. Nahi gabe ere, tarteka, ekitaldiak pilatu egiten baitira". Aurtun estuasunak izan badituzte, zer izango da 2026an? Apirilaren 30a osteguna izango baita, eta maiatzaren 3a igandea. Logikaz, lau egunetara mugatu beharko litzukete jaiak. Baina, gero geroak. Lehenik eta behin aurtengoak antolatu behar dira.





Erosi Andoainen

*Zuretzat denda bat dena,
zure herriarentzat dena da.*

**ONLINE BAZAUDE,
ANDOAINEN EZ ZAUDE**

Gora Santakruzak!









Urrats
inprimategia

Jaletarako prest?

Bluxak, kamixetak, zapiak, txapak...

Egin zuen kuadrillako ezaugarria

Urrats: 688 61 85 48

urrats@urratsinprimategia.com

Gora Santakruzak!

haur eta gazte jantziak
0-16 urte

AMABI

eta emakumeentzat

**HİKA ONLY
PIECES
JJXX**



Zumea kalea, 15. ANDOAIN. 943 57 31 62






Jaietako otorduak, arrakastaren bidetik

Kuadrillen egunekora eta auzo bazkarira hurbiltzen den festa-zaleen kopurua handitzen ari da, urtez urte. Kuadrillen Eguneko bazkaria, esaterako, nabarmen hazten ari da. Ondotxo dakite hori antolatzaileek, eta gerora begira, urratsez urrats joatea erabaki dute: "Iaz, 500 txartel saldu ziren. Aurten, 600. Kolpetik txartel gehiago saltzea jauzi handia da guretzat. Hobe pixkanaka joatea eta iguera bakoitzari neurria hartzea".

Auzo bazkarira ere geroz eta jende gehiago hurbiltzen ari da. 2022tik 2024ra larunbatarekin egin dute bazkaria eta, horrek, akaso, igoeran izan du eragina. Aurten, ostegunarekin izango da, maiatzaren 1ean. Antolatzaileek pazientzia eskatu dute, eta kopurua mugatua izango dela aurreratu: "Iaz, eskura genituen mahai guztiak atera genituen. Eta aurten ere horrela izango da. Baina jakin bezate denek mahai kopurua mugatua dela. Bazkaltzeko ordua iristen denean, mahaiak hartzeko zain direnei, pazientzia eskatu nahi diegu".



Txakoli dastaketa, 2017ko Santa Krutz jaietan. AIURRI

Tirolina, gaztetxoak aintzat hartu nahian

Aurtengo egitarauan aipagarria da tirolinaren iragarpena. Maiatzaren 3an, goizez eta arratsalde, tirolina iragarrita dago. "Bada adin tarte bat zeinean eskaintza zehatzik ez dagoen eta, bereziki, 12-16 urtekoak aintzat harturik Leitzaran erreka igaroko duen

tirolina antolatu dugu. Ur maila ez bada gehiegizkoa, egingo dugu. Eta maiatzaren 3an egiteko aukerarik ez badago beste egun batean egingo dugu". Zerbitzu profesionala eskainiko dute horretarako. Lan horietan trebatuta dagoen enpresa bat kontratatuko du Jai Batzordeak. Zubiarren parean, Kale Nagu-

siaren eta Espigoiaren artean jartzeko asmoa dute tirolina.

Jaietako azken hitzordua Zubiaurre etxean

Jaiak, hasi bezala, Zubiaurre etxean amaituko dira. Iaz, igande gauean, Zubiaurre etxean zegoen ikurriña kendu zuten. Lagunartean egin zuten eta aur-

ten egitarauan txertatzea erabaki dute. Amaiera sinbolikoa eman nahi diote jaiari: "Santa Krutz martxa megafoniarri eta bertaratzen direnei zarata egin dezaketen kazuela edo danborra jaistea eskatu nahi diegu. Amaiera popularra eman nahi diegu jaiari".

Jai Batzordeko kideekin solasaldiari amaiera eman aurretik bi aztergai gehiago hartu dituzte hizpide. Lehena, jaiak auzora zabaltzeko borondatea: "Antolakuntzaren ikuspegitik errazena litzateke ekitaldi gehienak Zumea plazan egitea. Baina gure borondatea jaia auzune osora zabaltzea da. Horrexegatik ekitaldi asko toki ezberdinetan egiten ahalegintzen gara".

Jaiak iristear dira eta gehien-gehienak egitarauari erreparatzen ariko dira. Azalean hasita, aurtengoa 1960ko jaietan erabilitako azal bera da. Arrazoiak? Afitxa egiten duen sortzailea kanpoan da eta, besterik ezean, aspaldiko azala berreskuratzea erabaki dute. Ez da lehen aldia, bada aurrekaria: Urte asko atzera, antzeko egin zuen orduko Jai Batzordeak.

Ernaitza
liburudenda

Liburu, joku hezitzaile eta oparietan aukera zabala

Gora Santakrutzak! Gora Andoain!

Zumea, 9 ANDOAIN. 943 592 459 - ernaitza@yahoo.com

ORDUTEGIA:
Asteartetik ostegunera: . . 09:00-19:00
Ostiralean: 09:00-17:00
Larunbatetan: 08:00-13:00

Jai zoriontsuak!

ILEAPAINDEGI ETA ESTETIKA

Tatoó
Piercing
Laser
Depilazioa

adats

Belabi kalea, 10-behea
20140 Andoain - Tel.: 943 570 796

20:00etatik aurrera - KARPAN

Afariak Txoznagunean

Xanti
Txantia, Cordonrosa, Mozarella, txakoli, berberea, berberea

Spalla
Txantia, Cordonrosa, Mozarella, txakoli, berberea, berberea

Nahia
Txantia, Cordonrosa, Mozarella, txakoli, berberea, berberea

Bakazak
Txantia, Cordonrosa, Mozarella, txakoli, berberea, berberea

Beganoa
Txantia, Cordonrosa, Mozarella, txakoli, berberea, berberea

Kroketak

Urdaiatzeko Espinaka

12 euro

2 euro

Andoain



SANTA KRUTZ JAIK 2025. EGITARAUA

APIRILAK 30

ASTEAZKENA

16:00 Jaien hasierako haur pregoia eta txokolata Zumea plazan.

17:00 Judo eta karate erakustaldia Zumea plazan.

18:30 Lebiton konpartsako erraldoi eta buruhandiak Plaza Moretik abiatuko dira Zumea plazarantz, Gora Kaletxiki txarangak lagunduta.

19:00 Zumeatarra elkartearen danborrada, Zumeatarra elkartetik abiatuta.

19:30 Pregoia eta txupinazoa Zubiaurre etxean, Punttuka bertso eskolaren eskutik.

19:30 Txosnen irekiera Bekoplazan.

19:30 "IV. Santakrutz harri txikia" harri-jasotzaile desafia Bekoplazan.

20:00 Olagain Udal Txistulari taldearen kontzertua Santa Krutz elizan.

21:00 Santa Krutz jaietako areto futbol txapelketa, Ondarreta Herri Eskolan.

22:30-04:30 3TUU taldea eta DJ musika emanaldia, Bekoplazan.

MAIATZAK 1

OSTEGUNA

07:30 Gautxorien txaranga Kale Nagusitik abiatuko da.

08:00 Gautxorien argazkia, Espigoian.

10:30 XLV. Kros herrikoia, XIV. Bixente Huiziren omenezkoa, Zumea plazan.

11:30 Haur krosa, Zumea plazan.

12:00 Txalaparta ibiltaria, Juanita Alkain plazatik abiatuta.

12:00 Bertso poteoa, Kale Nagusitik abiatuta.

12:00 XLVI. Txirrindulari lasterketa, Kaleberrian.

12:30 Kantu kalejira, Juanita Alkain plazatik abiatuta.

14:00 Auzo bazkaria, Kale Nagusian. Euriarekin txosnagunean.

16:30 La Jodedera.

17:30 Erreka jaitsieraren iritsiera. Irteera Olazarretik, 16:15etan.

17:30 Potx magoa, Santa Krutz elizan.

18:30 Bizikleta festa, Zumea plazan.

18:30 Herri danborrada, Bekoplazatik hasita.

19:00 Plaza dantzak, Plaza Moretik abiatuta.

19:00 Tabernen arteko XII. Pintxo txapelketa.

21:45 Zezen-suzkoa, Lebiton konpartsaren eskutik, Zumea kaletik abiatuta.

22:00 Kontzertua: Black Smoke & Olgetan.

MAIATZAK 2

OSTIRALA KUADRILLEN EGUNA

10:00 Musika Eskolako akordeoien kalejira, Plaza Moretik abiatuta.

12:00 Kuadrillen arteko jokuak Zumeatik hasita, txarangaz lagundurik.

12:00 Bermut musikatua, Espigoian Ezekiel DJ-aren eskutik. Euriarekin, Bekoplazan.

14:00 Kuadrillen bazkarirako ate irekiera.

17:00 Kuadrillen bazkaria, Zumea plazan.

14:30 DJ ibiltaria! Zumeatik hasita.

17:00 Puzgarriak, Zumea plazan. Euriarekin, Ondarreta Herri Eskolan.

20:15 Andoaindar DJ prextuak, Bekoplazan.



BAIETZ GABE, EZETZ DA

JAIETAN ERASO SEXISTARIK EZ!!

EZ IZAN KONPLIZE



ANDOAINGO UDALA



Aita Larramendi Ikastola

Jaietan ere ekin euskaraz



Gora Santa Krutzak

Txistoki Pasealekua, z/g
20140 - Andoain
Tel.: 943 593 525 - Fax: 943 590 390
andoain@ikastola.eus
www.andoainikastola.eus



Ondo pasa
Santakrutzetan!

Eguneko menua
Plater konbinatuak
Bokatak



Zumea, 22 - Tel.: 943 590 210 - Andoain



22:30-04:30 Kontzertua: La Txama. Ondoren, Zilibito Records txosnagunean.

MAIATZAK 3

LARUNBATA SANTA KRUTZ EGUNA

10:00 Dultzaineroen saioa, Juanita Alkainetik.

10:30 Banderaren jaitsiera: Udal korporazioa, eskopeteroak eta txistulariak lagunduta.

10:30 Ezpata dantza Santa Krutz zubian.

10:30 Artisau azoka eta umeen tailerrak, 15:00 arte.

11:00 Meza Santua, Alberto Agirre abesbatzak kantatuta, Santa Krutz ermitan.

11:00 Eskopeteroak, Santa Krutz zubian.

11:30 Ezpata Dantza eta Brokel dantzak, zubian.



Distopia elektrotzaranga ariko da larunbat arratsaldean, 19:00tan hasita. AIURRI

Ondoren, tirolina 8-16 urte bitartekoentzat arratsaldeko 15:00ak arte.

12:00 Txakolin dastaketa, Espigoian. Euriarekin, Bekoplazan.

12:00 Andoingo trikitilarien kalejira, Plaza Moretik.

16:00 Tirolina, 8-16 urte bitartekoentzat, 20:00ak arte.

16:00 Artisautza azoka eta umeen tailerrak Zumea plazan, 20:00ak arte.

18:00 Bakailao txapelketa, Kale Nagusian.

19:00 Distopia elektrotzaranga, Bekoplazatik.

22:30 Santa Krutz Peña elkartearen danborrada, Kale Nagusitik abiatuta.

23:00 Muxutruk erromeria.

04:30 DJ La Fulana.

MAIATZAK 4

IGANDEA

10:30 Eneko Martiarenaren oroimenezko IV. Xake Txapelketa Juanita Alkain Plazan, 14 urte artekoentzat.

11:00 Joxe Ramon Ansaren oroimenezko ekitaldia, Espigoian.

11:45 Urki dantza taldearen emanaldia, Zumea plazan.

12:00 XLIV. Sagardo txapelketa eta Basataloak Zumean plazan.

17:00 Egur jokuak Espigoian.

18:00 Brew & Roll artisautzako garagardoa eta talogileak.

18:30 Malkogarriyak Zumea plazan.

21:45 Zezensuzkoa, Zumea kaletik abiatuta.

22:00 Danborrada popularra eta festa amaiera, Zubiaurren.

ORMENDI KIROLOAK



943 59 18 06



Gora Santa Krutzak



Amaren
eguna



Santakrutzak

**ATAL BEREZIA
WEBGUNEAN**

egitaraua, albisteak,
argazkiak
eta bideoak

aiurri.eus

LEIZARAN 
Gestión Inmobiliaria

Gora Santakrutzak!

Kale Nagusia, 53-behea. ANDOAIN
Tel: 943 591 856
Tel: 619 661 323
e-mail: info@inmoleizaran.com
www.inmoleizaran.com

- Etxebizitzak
- Lokalak
- Alokairuak



**KALE NAGUSIA, 55
20140 ANDOAIN
TEL.: 943 592 954**

**J A T E
T X E A
T A B E
R N A**

**ONDO
PASA
FESTETAN**





1989. urteko erreka-jaietsierako irudia, Udal Artxiboan gordeta. UDAL ARTXIBOA



Iñaki Martiarena eta Maitena Lizarribar, 1988. urteko erreka-jaietsieran. UDAL ARTXIBOA

Erreka jaietsiera, iraganean atzera eginda

Azken hogeita bost urteotan Andoaingo Eguzki Talde Ekologistak antolatu du Leitzarango ibaiaren jaietsiera. Aurreko ekimen ezberdinen lekukoa hartu zuen, izan ere, 80ko eta 90eko hamarkadatan erreka-jaietsiera egin izan zen

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Eguzkik 25 urtez antolatu du erreka jaietsiera Santa Krutz jaietan. Euren, alabaina, aurreko beste ekimen batzu-

ren lekukoa hartu zuten. Izan ere, 80 hamarkadan aurki daitezke erreka jaietsieraren lekukotzak. Gazte ugari elkartzen zituen Olinpiapopularrak, eta

ekimen horren amaierak bat egiten zuen jaien hasierarekin. Hortxe, beraz, erreka jaietsieraren aipamen zaharrena. Udal Artxibora jo du Aiurri astekariak

eta 1987tik aurreragoko argazkiak eskuratu ditu. Artikulu honetan ageri diren bost argazkiak 1988 eta 1989 urteetakoak dira. Badi-tuzte ere 1987koak.

Aipamena jai-egitarauan

Santa Krutz jaietako egitarauan, berriz, jaietsieraren lehen aipamena beranduago ageri da. Udal Artxiboan gordeta dauzkate jaietako programak eta lehen jaietsieraren aipamena 1991ekoa da. 1996koan, berriz, laugarren edizioaren aipamena egiten da.

XXI. mendean sartuta, Eguzki talde ekologistak ekimenari jarraikortasuna eta egonkortasu-

na eman dio, urte hauetan guztietan hutsik egin gabe antolatu baita erreka jaietsiera. Inguruarri eta Leitzarango ibaiari estuki lotuta dago Andoaingo herria eta erreka baten egiten den hitzordua horren adibide argia da.

Aurtengoa ere, Eguzkik antolatuta egingo da.

**EGUZKIK
ERREKA-JAITSIERARI
JARRAIKORTASUNA
ETA EGONKORTASUNA
EMAN DIO**





Zutik, ezkerrean hasita: Aitor Perez, Iñaki Belaunzaran, Pablo Manterola eta Marian Cepeda. Behean, ezkerretik hasita: Patxi Otsoarrarte, Manu Cuesta, Iñaki Areizaga, Karlos Jacinto, Joseba Collantes eta Mikel Salaberria. Argazkia 1988koa da. UDAL ARTXIBOA



Jesus Candelario Iparragirre eta Mikel Herce, 1988. urteko jaietan. UDAL



Patxi Otsoarrarte eta Mikel Salaberria, 1988. urteko erreka-jaisieran. UDAL ARTXIBOA

Urteotan, Eguzkiren eskutik

Maiatzaren lehenean Eguzki talde ekologistak 25. edizioa antolatuko du. Honakoa da egitaraua:
16:00 Baltsak jaso Bekoplazan.
16:15 Olazarren elkartuko dira partaideak.
16:45 Jaisierari ekingo diote.
17:30 Iritsiera Santa Krutz eliza ingurura.

Aldarrikapenez betea
Azken urte ohiko bilakatu diren arazoak lehen lerrora ekartzeko saiakera egin dute. Eguzkiren ustez, aztergai nagusiak hiru dira: Otieta eta inguruaren turistifikazioa, hondakinekiko ibaien babesa eta Leitzaran bailararen antolaketa beharra.

Gabilondo
AHOLKULARITZA
Gora Santakrutzak!
Kale berria, 1-behea. ANDOAIN
Tel./Faxe: 943 303 025
asesoriagabilondo@yahoo.es

Euskal Herriko trofeoa KEINUko txapela da!!!
Goikoplaza, 5. ANDOAIN.
637 283 224
keinuandoain@gmail.com
f i GORA SANTAKRUTZAK!
KeiNU

arruti
gozotegia
Gora Santakrutzak

Maiatzak 4, amaren eguna
Zumea 18, ANDOAIN
Enkarguak jasotzen ditugu
943 593 777



Hamalau urteko etenaldiaren ostean, lehen agerraldia egin zuten Itziarren, 2013an. EITB



2017ko Bilboko jaietan txistularien gonbidatu gisa igo ziren oholtzara. WIKIPEDIA

Maixa eta Ixiar, jaien amaierako erromerian

Maixa eta Ixiar bikoteak 1999an iragarri zuen agurra, hainbat disko eta ehunka erromeri egin ostean. Agerraldi bakanak egin dituzte geroztik eta, horietakoa, aurtengo jaietan izango da. Maiatzaren 4an, Zumea plazako oholtzara igoko dira

Erredakzioa ANDOAIN

Santa Krutz Jai Batzordeak ospakizunak biribiltzeko sorpresa galanta lotu du: Maixa eta Ixiar oholtza gainean ikusiko ditugu berriro! Erromeri eta trikitixa-zaleentzat opari polita da, zinez. Jaietako azken egunean izango da, maiatzaren 4an, hain zuzen. Zumea plazan Malkogarriyak taldea iragarrita dago eta, euren emanaldiaz gain, Maixa eta Ixiar

zuzenean ikusteko aukera izango da. 1990eko hamarkadan Euskal Herriko plaza gehienetan aritu ziren eta, 1999an taldea desagitea iragarri zutenetik, agerpen bakanak egin dituzte. 2013an, Itziarren egin zuten agerpena eta bilkurak ikusmin handia piztu zuen. Antzekoa gertatuko da, aurtén. "Iluntzean" egileen ahotsean berriro entzutea majikoa izango da.

Bizikleta festa, Kaleberrian

Orain arte, Bizikleta Festa Zumea plazan egiten zen baina ospakizunetarako karpa geroz eta handiagoa da eta horri gehitu behar zaio taberna gehien kanpoaldean jartzen dituzten terrazak. Gauzak horrela, aurtén, Kaleberrian izango da. Horretarako ere ibilbide itxia egokituko dute. Arratsaldeko 18:30ean izango da, maiatzaren lehenean.



AIURRI

Olagain Txistulari Elkartearen kontzertua

Andoaingo Olagain Txistulari elkartearen kontzertua, apirilaren 30ean izango da, 20:00etan hasita, Andoaingo Santa Krutz elizan. Txupinazoa amaitu eta gutxira, beraz. Honako erreperitorio hau iragarri dute: Ilunabarra eta Ohorezko kontrapasa, Oria baltsa, Adarra, Andoain, Krisostola, Baltseen potpourria II, Aldapan gora, Panderotxoa, Azken dantza eta, bukatzeko, Santa Krutz martxa.

Olagain Udal Txistulari Elkar-tea ez da bakarrik ariko eta hainbat gonbidatu izango ditu jaien hasierako kontzertuan. Honako hauek: Alberto Agirre abesbatza, Javi Gestoso gitarrak, Antton Arruti trikitilaria, Lier Sarasola kaxoi-jotzailea, Itxaso Sanchez kantaria, Aingeru Zabala eta Edorta Setien tronpetak-jotzaileak eta Jurgi Errandonea dantzaria. Guztiak ere Jon Ander Belamendia Arruabarrena zuzendariaren esanetara ariko dira. Ainhua Aiertza izango da aurkezlea.

Sagardoa, eguerdian

Aurtén, maiatzaren 4an egingo den sagardo dastaketa eguerdiko 12:00tan hasiko da. Zumeatarra elkarteak inguruko sagardogile gehienak elkartuko ditu Zumea plazan. Sagardoaren osagarri bikaina izango da taloa, beste urte batez Basataloak ekimenaren eskutik antolatu dena. Janaren eta edanaren bueltan igaroko da Santa Krutz jaietako azken eguna.



AIURRI

Bi danborraden entseguak

Honatx, datorren asteko entseguak:

Herri Danborrada

Maiatzak 1, osteguna
18:30ean, Bekoplazatik abiatuta.
Entseguak, 20:30ean hasita:
Apirilak 28 eta apirilak 29.

Santa Krutz Peña

Maiatzak 3, larunbata
22:30ean, Kale Nagusitik abiatuta.
Entseguak, 19:30ean hasita:
Apirilak 28 eta apirilak 29.



AIURRI

Garagardoa, arratsaldean

Jaietako azken egunean, 18:00tan hasita, Euskal Herrian egindako artisautzazko garagardoa dastatzeko aukera izango da Zumea plazan. Edanaz gain, Basataloak taldeko kideak bertan izango dira talo goxoak eginez. Iker Etxebesteren garagardoak arrakasta handia izan zuen iazko azaroan Larramendi Bazkunak Goikoplazan antolatu zuen azoka berezian.



AIURRI

"Transmisioa baino gauza hoberik ez dago"

Beste urte batez, Andoainen frankismoak eraildako pertsonak eta eragindako biktimak gogoan hartu zituzten Miranda pasealekuan. Apirilaren 12an egin zuten ekitaldia, eragile askoren lankidetzarekin

Erredakzioa ANDOAIN

Beste hainbat argudioen artean, Oroituz elkarteak frankismoaren biktimek pairatu duten utzikeria salatu zuen: "Trantsizioarekin, isiltasuna eta amnesia aplikatu zituzten, eta, ondorioz, urteotan guztietan frankismoaren milaka, milaka eta milaka biktima joan zaizkigu, egia, justizia eta errekonozimendu ofiziala ezagutu gabe". Hori nahikoa ez eta belaunaldi berrien artean Francoren basakeriak ukatzen dituen diskurtsoa zabaltzen ari dela eta, kezka adierazi zuten. Horren aurrean, Oroituzen ustean, "Andoainen omentzen ari garen memoria historikoaren transmisioa baino gauza hoberik ez dago".

Intxorta 1937 elkarte, aurtengo gonbidatua

Debagoienako memoria historikoa aldarrikatzen ari da urteotan Intxorta 1937 izeneko elkarte. Juan Ramon Garai da elkarteko kideetakoa. Azken hamarkadatan frankismoak eragindako krimenekiko zigorgabetasuna salatu zuen Andoaingo ekitaldian: "Oraindik, eta datorren urtean 90 urte betetzen dira, guk ere ez dugu ezagutzen gure senitartekoekin gertatutakoaren egia osoa. Sekretu Ofi-



Lore-eskaintza Miranda pasealekuan, joan zen apirilaren 12an. AIURRI

zialen Legearekin ezin dugu jakin zer dagoen poliziaren eta guardia zibilaren artxiboetan. Justiziaren eremuan ez da ezer egin. Bada garaia epaileak gure senideekin gertatutakoa ikertzen has daitezen".

Herri eragileen partaidetza

Maizorri Txalaparta elkarteko Jon Urtasun eta Ekaitz Ollo, Olagain Udal Txistulari elkarteko kideak, Urki dantza taldeko Ander Egaña, Punttuka bertso eskolako Beñat Beloki, Abesbatza Errepublikanoa, Gora

Kaletxiki txaranga eta Sepastopol dantza eskolako dantzariak.

Bertsoa

Honatx, Beloki bertsolariak abestu zuen bertsoetako bat: *Etorkizuna ez dago garbi, dauzkagu hainbat aukera. Eskuin joerak apurtu eta irten gaitezen kalera, aberri zarra defendatuaz, ahoan beti euskera. Gure arbasoek hala nahi zuten ta etzuten egin atzera. Herri libre bat egin dezagun, jarraitu denok aurrera.*



Aurkezpena egin zuten aurreko astean. AIURRI

Euskaraz Barra-barra, Andoaingo ehun saltokietan

Euskara egunero eroso eta lasai erabili ahal izateko espazioak marka horren pean batu dituzte

Erredakzioa ANDOAIN

Euskaraz Barra-barra ekimenaren bereizgarria da "e//" delako marka, pegatina gorri biribila. Sustzailea Eusko Jaurlaritza da eta Andoaingo Udala ekimenarekin bat egiten udalerrri aitzindarietakoa da. Zer da Euskaraz barra-barra? "Ekimenak kontsumitzailea erdigunean jarri eta espazioak identifikatuko ditu euskara egunero eroso eta lasai erabili ahal izateko eta bizipen eroso eta positiboak bizitzeko". Hortxe, definizioa, sustatzaileen hitzetan. Duela hiru urte sortu zuten Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Iparraldeko Euskararen Erakundeak. Andoainen, aurreko agintaldian hasita, ekimenarekin bat egin duten saltokietan herritarrek beti topatu ahal izango du euskaraz mintzatzen den langilea. Kanpainaren berri emateko agerraldia egin zuten aurreko

asteen Andoaingo Udal ordezkariak eta Euskara saileko teknikariak. Herritarren artean marka ez dela hain ezaguna uste dute, eta horrexegatik heldu diote ekimenari gizarteratzeari.

Andoainen Andoaingo 100 merkatari eta ostalarik egin dute bat markarekin. Herriko ia saltoki erdiek bereganatu dute marka, hortaz. 226 merkataritza-establezimendu daudenez herrian, esan daiteke ia erdiek bereganatu dutela marka.

Hainbat udalerrri Euskal Herrian

Euskal Herri osoan sare handi bat osatzen ari dira egitasmoa ahalik eta toki gehienetara zabaltzeko, euskal hiztunen hizkuntza eskubideak bermatzeko, bereziki, baldintzarik zailenak dituzten eremu geografikoetan. Horregatik, hango eta hemengo merkataria animatu nahi dituzte bat egitera.



Oroituzen
ekitaldia
WEBGUNEAN

argazkiak
eta bideoak

aiurri.eus



Alba Cabrera Jauregi URNIETA

"Kito" esan du Vaiven antzerki-konpainiak, 28 urteko ibilbidearen ondoren, egoera ekonomiko zaila dela eta. Itxierak mahai gainean ipini du konpainia askoren errealitatea: ez da erraza sektoreak bizi duen krisi luze-ari aurre egitea. Etxeko ateak zabaldu dizkio Aiurriri Ana Pimenta Vaivengo zuzendariak, oholtzatik jaisteko erabakiaren nondik norakoak hobeto ezagutzeko asmoz.

Egoerari aterabiderik ikusi ez eta otsailean iragarri zenuten konpainiaren amaiera. Hala, itxiera ematen ari zarete pixkanaka ia hiru hamarkadako ibilbideari. Zer moduz zaudete?

Tristura handiarekin. Nire alde batek lasaitua hartu du, egoera jasanezina zelako. Jakin behar da seinaleak ulertzen, jakin behar da noiz gelditu. Finean, guri gertatu zaiguna sektoreak bizi duenaren sintoma bat besterik ez da, oso handia baita zaurgarritasuna eta autoesplotazioa.

Ez da egun batetik bestera hartutako erabakia izan. Oso zaila egin al zaizue 30 urtez horren zuena izan den proiektu bat askatzeko erabakia hartzea?

Uda amaiera partean, jada, bannuen buruan aukera hori, zegoen eskari txikia ikusita. Konpainiako zuzendaria naiz eta zenbakiak ikusten nituen. Lehen, garai batean, irailean, programazioari ekiten zioten antzokiek eta maiatza bitarte irauteen zuen. Orain, ordea, urri edo azaro partean hasten dira, estutu egiten baitute, aurrekontu txikia edukita. Bada, apirila aldean, listo, bukatu da. Nola egin hila-bete eskasetan urte osokoa? Ezinezkoa zen, zulo handia sortzen ari ginen.

"Masustondoen patioa" obraren aurrestreinaldia egin genuen Saroben, iazko martxoan. Jende asko maitemindu zen lanarekin, baina ikuskizunak ez zuen guk aurreikusitako ibilbidea izan. Kritika bikainak jaso dituen obra batek programazioak betetzea lortu ez badu, zer egingo dugu? Gainera, "Familia sarekada" obraren bira amaitzeaz zen eta, ez, ez nengoen beste ikuskizun bat antolatzen besteko indarrarekin. Orduan agertu zitzaidan txanponaren beste aldea: gaizki nengoen fisikoki, oso triste, ezindua.

Hala, urrian-edo egoera azaldu nien aktoreei: miraria ger-

"Oso zaila da merkatua gurea bezalako konpainia txikientzat"

ANA PIMENTA VAIVEN ANTZERKI-KONPAINIA

Agur esango dio oholtzari Vaiven antzerki-konpainiak, 40 ikuskizuneko ibilbidea egin ostean. Maiatzaren 18an egingo dute amaiera-ekitaldia, Egiako Gazteszenan



Ana Pimenta eta Kide Diez de Rada, errege-erreginen paperean. SAROBEN

tatu ezean, martxoan itxiko dut. Izan ere, kudeatzaileak esaten zidan, "Ana, hilean 5.000 eta 6.000 euroko zuloak egiten ari gara". Irudika ezazu zer den hori gu bezalako egitura txiki batentzat. Gainera, itxiera arduratsua egin nahi genuen Iñakik eta biok, eta langileei ordaindu. Orduan, zenbakiak botatzen hasi ginen, eta martxoa baino urrunago ez ginela iritsiko ikusi genuen.

"Zer gertatu da?". Sentipen horrekin goaz. Gertatu da ekonomikoki ez dugula aurrera egitea lortu, gertatu da funtzionatzea espero genuen ikuskizunak ez duela ia ibilbiderik izan, nahiz eta ikusleei izugarri gustatu. Nola da posible horrelako aldea egotea publikoaren iritzia- ren eta salmentaren artean? Oso nekatuta harrapatu nau egoerak, "honaino" esan dudana arte.

Hasieran, sektorekoekin soilik hitz egin genuen, Eskenarekin, bertako buru izan naiz urte luzez eta kide naiz. Gure asmoa isilean alde egitea zen, baina hori ere bazen martxa egitea guk ezer egin izan ez bagenu bezala. Bada, hori horrela, ikuskizuna genuen Gasteizen, "Masustondoen patioa" obrarekin. Bertako programa-

VAIVEN KONPAINIAK "MASUSTONDOEN PATIOA" OBRAREN AURRESTREINALDIA EGIN ZUEN SAROBEN

tzaileak gure azken lana zela adierazi zuen prentsaurrekoan. EITB gurekin ipini zen harremanetan, eta pare bat aldiz pentsatuta, publiko egitea erabaki genuen, egoerarekin zintzoak izate aldera, ez baita Vaivenen arazo isolatua, arazoa estrukturala da. Pandoraren kutxa irekitzea izan zen, harrezkero hamabost bat elkarriketa-edo egin ditut. Baina, bien bitartean, joan den asteko ostiralera arte, bulegoa husten aritu naiz: kartelak, programak, dirulaguntzak... Pisu sentimental handia duten gauzak botatzen aritu naiz.

Konpainiaren itxierak zer esana eman du antzerkigintzan eta askotariko babes mezuak jaso dituzue ofizioko kideen partetik.

Askok penaz eta enpatiaz hartu dute albistea, gure konpainia maitatua baita. Oso ausartak izan gara diote askok, erabakia hartzeagatik eta publiko egiteagatik. Finean, sektorea batzen dute horrelako gertakariak, eta pizgarri dira pentsatzeko, "norantz jo nahi dugu? Zein neurri hartu behar ditugu? Nola presionatu behar ditugu erakundeak?". Izan ere, batek baino gehiagok esan digu erabaki berdina hartzetik pauso batera dagoela. Ikus-entzuleak ere gerturatu izan zaizkit esatera beharbada ez direla nahikoa joan antzokira eta gehiago egin zezaketela. Baina, esan bezala, egiturazko arazoa da. Ez dut katastrofismoan erori nahi, belaunaldi berriekin antzerkia egiteko beste modu batzuk etorriko direla pentsatu nahi baitut. Garrantzitsua da-eta arte eszenikoek bizirik jarraitzea.

Zabalik ikusten duzu egungo ohol-tza-zirkuitua antzerkia egiteko askotariko lengoaietara zein modutara?

Merkatuak zaila jarri digulako eman diogu amaiera 28 urteko bideari, oso finkatua baitago kartel-buruekin edo aurrekontu erraldoiko proiektuekin. Badaude bestelako proposamen alternatiboagoak hitzartzen dituzten programatzaileak, baina gutxiengo dira. Horrela, oso zaila da merkatua gurea bezalako konpainia txikientzat, eta, zenbakiei erreparatuta, 2008ko kirisitik ez gara osatu.

Ildo beretik, zenbateraino eragiten dio kultura-kontsumoak bizi duen paradigma aldaketak antzokietara joaten den publikoaren kopuruari?

Autokritika ere egin beharra dugu, belaunaldi gazteak galdu baititugu. Geroz eta itsatsiago dago jendea pantailara, ez da etxetik ateratzen. Hala, antzerkia gertaera bizia da, eta hara joaten zara gauzak gerta dakizkizun, emozioak zeharka dakizkizun. Uste dut belaunaldi gazteenak urrun daudela horrelako adierazpen artistikoetatik. Orain, pantailaren bidez kontsumitzen da, sofatik, klik bakarrera. Bi formak bateragarriak izatea gustatuko litzaidake, baina hezkuntzan huts egin dugu. Ez dugu lortu publikoa heztea, Frantzian egiten duten bezala, adibidez. Antzerkira txiki-txikitatik eramaten dituzte, eta hamabost urte bete dituztenerako, beren ekimenez joaten dira antzokira. Berandu gabiltza, belaunaldi bat galdu dugu eta orain zuloak estaltzen ari gara.

Urte batzuk gorabehera, bada zuen konpainiaren sorreraren garai berean martxan jarritako oholiza bat: Urnietako Sarobe arte eszenikoen gunea. Harreman estua izan duzue antzokiarekin, hasiera-hasieratik.

Etxe bat izan da guretzat, bertako kideekin betidanik izan dugun gertuko harremanagatik eta eman diguten askatasunagatik. Jakinduria eszeniko handiko jendea da, sektorearen ezaugarriak ezagutzen dituen. Luxua izan da, adibidez, aurrestreinaldiak bertan egin ahal izatea, eta publikoarekin lehen hartu-eman edukitzea. Espazioa bera ere oso gustuko dut; fabrika itxura du, ez da horren kontentzionala. Bada toki magikoa eta lotura emozional estua daukagu antzokiarekin, bertan erditu baititu konpainiak ikusizun asko.

Zuen konpainiaren izenak, "Vaiven", joan-etorriari egiten dio erreferentzia, mugimenduari. Zertan aldatu da konpainia lehen ekoizpenetik azken obrara bitarte?

Damu naiz euskaraz ere jokoa eman zezakeen izen bat ez jarri izanaz. Egia da, erdalduna naizela eta denbora tarte txikia neramala hemen proiektua martxan jarri genuenean, baina Iñakiri ere gustatu zitzaionez, aurrera egin genuen. Era berean, joan-etorriaren ideiatatik etorri zitzaidan burura izena, mugimenduak konpainiaren filosofiarekin bat egiten baitu.

Ezagutzen, esperientzian eta kalitatean hazi gara. Askok ikasi dugu sektoretik, Eskenatik



Ana Pimenta. VAIVEN

adibidez. Esponja bat izan gara, gure baloreei uko egin gabe.

Gainera, denboraren poderioz, hasieran ezin genituen merkatuetan sartzeko aukera izan dugu, bai Euskal Herrian, bai kanpoan. Esaterako, Hego Amerikan lan handia egiteko aukera izan dugu: Argentina, Venezuela, Brasil, Kolonia...

Kontrara, zertan ez da aldatu?

Gauza askok iraun dute bere horretan, tartean, errealitatearekiko edo hizkuntzarekiko dugun konpromisoak. Era berean, zigilu garrantzitsu bat ere izan dugu: zuzendari desberdinekin lan egiteko aukera izatea, guk jatorrizko ideia botata eta autore batek dramaturgia landuta. Hori opari bat izan da: Josep Maria Mestres, Laila Ripoll, Fernando Bernues, Mireia Gabilondo, Javier Sabadie... Ikusizun bakoitza erronka bat izan da eta asko ikasi dut horiekin guztiekin.

Talde artistikoa fidelizatzen saiatu gara beti, ahal genuen guztietan pertsona berberekin lan egiten, elkarrekin hazteko modu bat dela uste baitugu. Gazteei lekua ematearen aldeko apustua ere egin dugu, dramaturgian, zuzendaritzan edo interpretazioan. Bestalde, beti piztu izan digu interesa autore garaikideekin lan egiteak, zeharkatzen gaituenaz jarduteko, hemengoaz eta orainaz hitz egiteko.

Zein ondare utzi dio Vaiven konpainiak antzerkigintzari?

Jende askok dio memoria garelako. Ikuslea interpelatu duten ikusizunak egin ditugu eta uste dut jendea gogoratuko dela gure obrekin. Ametsak bizirik mantentzea da kulturak duen egitekoetako bat eta gu arimak suspertzen saiatu gara, emozioak sortuz eta gauzak zalantzan jarritz. Gure harridurarako aitortza handia egin digu jendeak,

Sarobekoen mezua, Vaiven konpainiarentzat

Sarobeurnieta.eus | Bloga

Hiru hamarkadako ibilbidearen ondoren, oholiza gaineko bidetari amaiera emango dio Vaiven Producciones-ek, euskal eszenaren erreferente ukaezina den konpainiak. Hala, hutsune nabarmena biziko du, beraz, Euskal Herriko kultura-ekosistemak, 40 ikuskizunetik gora ekoitzi baitituzte bidean, hainbat sari jasotzearekin batera. Behin betiko itxiera arte eszenikoen sektoreak bizi duen krisialdi larriaren ondorio da, desegonkortasunak Vaiven bezalako konpainia independenteak astindu baititu, bereiziki.

Bere ibilbidearen lekuko eta gotorleku izan da Sarobe Arte Eszenikoen Gunea, pasioa eta profesionaltasuna partekatuz, 30 urte hauetan. 1998tik, "La Coraje", estreinatu zuenetik, 2024ra arte, "Masustondoen patioa" azken antzezlanera arte, Vaivenek bere proiektu eszeniko gehienak Fabrikak eskaintzen duen zerbitzuan garatu ditu: "Familia sarekada", "Ni munduko txarrena", "Sherezade eta tipularen azalak", "Lotsagabe", "Happy end", "Purga", "Duda razonable", "El club de las mujeres invisibles", "Inalambrikak", "Antígona", "Nasdrovia Chejov", "Eduardo II", "Victor Bevch", "A cuestras con Murphy", "Crímenes del corazón".

Zalantzarik gabe, luzaroan iraungo du Vaivenen lanak kulturazaleen artean, eta, zeresanik ez, Sarobeko hitzorduetan hutsik egiten ez dutenen artean, konpainiaren makina bat aurrestreinaldiez goatzeko pribilegioa izan baitute... Hori bai, benetako luxua! Ez da kasualitatea konpainiaren izena, "Vaiven", artista sortzaileen jardunari estuki lotutako kontzeptuak ekartzen baititu gogora: ezegonkortasuna, nomadismoa, oszilazioa eta etengabeko joan-etorria. Espiritu horrekin egin dute beren bidea, harik eta une zail honetara iritsi arte. Horregatik, prest egongo gara, konpainiaren agur-emanaldian, merezitako gorazarre eta txalo-zaparrada eskaintzeko.

Kaka Zarra! Ez dadila kulturaren haria eten!

utzik genuela iragarri genuenetik eta gure lana balioan jarri du.

Ez diozue, ordea, edonolako itxiera emango konpainiari: agur-ekitaldia antolatu duzue maiatzaren 18rako. "El ultimo Vaiven" du izena azken ekitaldiak eta Donostiako Gazteszenan izango da, arratsaldeko 18:30ean. Salgai daude sarrierak, jada. Topaketa izan nahi du agur-ekitaldiak, gurekin zer bait partekatu nahi duen ororentzat zuzendua. Ikusizunetan entzun izan diren piezak interpretatuko ditu Iñakik, lehenik, eta, jarraian, "Familia sarekada" obra taularatuko dugu, konpainiak egin duen azken ekoizpenetako bat. Gaztelaniaz izango da, neu ere oholiza gainera igo ahal izateko. Ondoren etorriko denari "esku-hartze bitxia" deitu diogu eta, bukatzeko, berriro ere musika entzuteaz gain, sorpresa gehiago egongo dira. Mikrofono irekia izango da, publi-

koa agurtu dadin, baita moka-dutxoren bat edo beste jateko aukera ere.

Amaitzeaz da Vaiven konpainiaren ibilbidea. Eta, orain, zein ibilbide hartuko duzue zuk eta Iñaki Salvadork?

Kontzertuak egiten jarraituko du Iñakik, besteak beste: maiatzaren 10ean "Piano baten inguruan: batzen gaituena" emanaldia estreinatuko du, Hondarribian. Astebetara, berriz, maiatzaren 17an, Lasarte-Orian izango da, "Eskusoinu bidaiaria" obraren estreinaldiarekin. Jazaldia, "Hegoak" emanaldia... Balioaniztuna da Iñaki eta han zein hemen jarraituko du.

Nire kasuan, pixka bat atsedean hartzeko beharra dut orain, azkenean, 40 urtez aritu naiz ofizioan. Abiadura jaisteko momentu ona da oraingoa, baina zabalik nago eta oso gustura jarraituko nuke antzeztan, noski.

